

TXOSTENA, SEKTORE PUBLIKOAREN GARDENTASUNAREN, HERRITARREN PARTE-HARTZEAREN ETA GOBERNU ONAREN LEGE-AURREPROIEKTUARI BURUZKOA

Herri Administrazio eta Justizia Sailak eskatuta egin dugu txosten hau, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 21. artikulua Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeari emandako eskumena baliatuz.

Txostenaren helburua da, batetik, 4/2005 Legearen 19. eta 20. artikuluetan eta Gobernu Kontseiluak 2007ko otsailaren 13ko Erabakiaz onartutako jarraibideetan agindutakoa behar bezala betetzen dela egiaztatzea eta, bestetik, hobekuntzak proposatzea (jarraibide horiek genero-eragina aurretiaz ebaluatzeari eta gizonen eta emakumeen desberdintasunak saihestu eta berdintasuna sustatzeko neurriak hartzeari buruzkoak dira).

Txostena eskatu den lege-aurreproiektuaren da *“Euskal Sektorre Publikoa osatzen duten erakunde eta entitateetan eta, zehazki, Autonomia Erkidegoko sektore publikoan, zabaltzea eta indartzea administrazio-jardueraren gardentasuna eta publikitatea, gobernu ona, informazio publikora iristeko eskubidea baliatzeko baldintzak, politika publikoen ebaluazioa eta baita herritarren parte-hartzea ere zuzenean edo zeharka interes publikokoak diren erabakien diseinuan eta erabaki horiek hartzean”*.

Beraz, **xedapen arauemaile orokorra** da, zer-nolako genero-eragina duen ikusteko ebaluatu beharrekoa, lehenengo jarraibidearen 2.1 atalean ezarritakoarekin bat etorriz. Horretarako, lehenengo jarraibidearen 3. atalean aurreikusitakoaren arabera, Generoaren arabera eraginari buruzko txostena, EAEko Administrazio Publikoaren lege-aurreproiektuari dagokiona, egin du araua sustatu duen organoak.

Egiaztatu dugu bete egin direla 4/2005 Legean aurreikusitako izapide formalak eta generoaren arabera eragina aurretiaz ebaluatzeko jarraibideak. **Generoaren eraginari buruzko txostenaren** edukiari eta hura egiteko prozesuari dagokienez, ohar eta proposamen hauek egiten ditugu:

- * Lehenik eta behin, gomendio orokor gisa, nabarmendu behar da generoaren araberako eraginari buruzko txostena 2014ko EAEko Administrazio Publikoaren Lege Aurreproiekturako egin zenaren berdin-berdina dela; arau-proiektu hura ez zen onartua izan, eta haren ondorio da izapidetze hau, bi lege-proiekturen bidez egina: txosten honek hizpide duena eta *Euskal Sektore Publikoko antolamendu eta funtzionamenduari buruzko Legearen* aurreproiektua. Edukietan aldaketa nabarmenik izan ez denez, eta horiek ahalik eta lasterren izapidetzea eskatu denez, 2014ko generoaren eraginari buruzko txosten bera aurkeztu da. Edonola ere, gomendatzen da egokitu daitezela bai txostenaren izenburua, gaur egungo araudiari dagokiona jarriz –*Sektore Publikoaren Gardentasunaren, Herritarren Parte Hartzearen eta Gobernu Onaren Legearen* aurreproiektua– eta baita artikuluen erreferentziak ere. Txosten honetan, gaur egungo artikuluen erreferentzietara egokitzeko zuzenketa horiek adieraziko dira.
- * Gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzeko helburuei dagokienez, otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 3. artikulua arabera botere publikoen jarduna zuzendu eta bideratu behar duten jarraibide orokorrak aipatzen dira txostenean, eta adierazten da lege-aurreproiektuaren zer artikulutan jasotzen den gai zehatz moduan emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren zuzeneko arauketa:
 - Txostenak dioenez, **61.g artikuluan** (4.j artikulua esan beharko balu ere) adierazten da EAEko Administrazio Publikoak, *“bere politikak diseinatzeko eta zerbitzuak kudeatzeko orduan, bermatu behar duela herritarrek, bai indibidualki bai kolektiboki, auzi publikoetan parte hartu, lagundu eta esku hartzeko aukera, genero-berdintasunaren ikuspegia eta, oro har, ikuspegi inklusibo bat, pertsonen eta kolektiboen heterogeneotasuna aintzat hartuko duena, txertatuz”*.
 - Txostenak dioenez, **65.2 artikuluan** (7.2 artikulua esan beharko balu ere) arautzen da lege-proiektu, plan estrategiko eta jarduketa esanguratsuen eraginari buruzko aurretiazko ebaluazio-prozedura. Bertan esaten denez, esku-hartze publikoa proposatzeko edo gauzatzeko eskumena duen sailak zehaztuko du, hasiera batean, ebaluazio bakoitzaren irismena, sakontasuna eta analisi-maila; aldez aurretik zenbatetsiko du zenbat denbora beharko den ebaluazioa egiteko, eta egin beharreko ebaluazioa barnekoa edo kanpoko den zehaztuko du. Alabaina, txostenean ere honako hau adierazten da: *“Edonola ere, ebaluazioak aurreikusi beharko du aldez aurretik interesa duten alderdi*



Erakunde Autonomiaduna

EUSKO JAURLARITZA



Organismo Autónomo

GOBIERNO VASCO

guztien parte-hartzea –emakumeen eta gizonen berdintasunaren ikuspegia txertatuz–, eta baita Administrazioak bere esku izango duen aukera-sorta bat ere, eta horien artean sartuko da, beti, ez esku hartzearena edo egoera ez aldatzearena”. Nabarmendu behar da egungo testu arauemailean kendu egin dela genero-ikuspegia txertatzeari buruzko aipamen hori. Horregatik, aurreko bertsioa berreskuratzea gomendatzen da, aurretiazko ebaluazioei buruzko partaidetza-prozesu orotan **genero-ikuspegia** txertatzeari garrantzia emanaz.

- Txostenak dioenez, gardentasunari buruzko **88.3 artikuluan** (23.3 artikulua esan beharko balu ere) honako hau esaten da: “*Informazioa irisgarritasun unibertsaleko printzipioari eta diseinuan guztiok parte har dezakegulako printzipioari jarraituz emango da, eta genero-ikuspegia txertatuz*”. Alabaina, gaur egungo testua aldatu egin da, eta honako hau esaten du: “*Gizabanako horiei berei dagokie ezgaitasun-egoeran edo desberdintasun handiagoko egoeran dauden edo erakundeetatik urrun egon izan diren kolektiboek sarbidea eragozten dieten oztopoak ezabatzea, herritar guztiak informazioa aukera berdinekin eskuratu dezaketela eta inor teknologikoki baztertuta izango ez dela bermatzeko baliabideak jarriz, ulergarritasun eta irisgarritasun unibertsaleko eta diseinuko printzipioen arabera eta genero-ikuspegia txertatuz*”.
- Azkenik, txostenak dioenez, parte-hartzea sustatzeko neurriei buruzko **115. artikuluan** (59. artikulua esan beharko balu ere) honako hau esaten da: “*Administrazioak, herritarren artean asoziazionismoa, parte-hartzea eta komunitatearen garapenerako lankidetzajarduera pribatu edo publiko-pribatuak sustatze aldera, sentsibilizazio- eta prestakuntza-kanpainak egingo ditu, bai herritarrentzat bai haien zerbitzura dauden langileentzat, eta horietan genero-ikuspegia txertatuko da, parte hartzeko prozedurak eta tresnak ezagutzera emateko eta horien erabilera bultzatzeko*”. Alabaina, gaur egungo arau-proiektua pixka bat aldatu da, eta honako hau esaten du: “*Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoak sentsibilizazio- eta prestakuntza-kanpainak egingo ditu, bai herritarrentzat bai haien zerbitzura dauden langileentzat, herritarren artean asoziazionismoa, parte-hartzea eta komunitatearen garapenerako lankidetzajarduera pribatu edo publiko-pribatuak sustatze aldera, eta horietan genero-ikuspegia txertatuko da, parte hartzeko prozedurak eta tresnak ezagutzera emateko eta horien erabilera bultzatzeko*”.

Bestalde, **Generoaren arabera aurretiazko ebaluazioari dagokionez**, alderdi hauek nabarmendu behar dira:

- * **Emakumeen eta gizonen presentzia orekatuari** dagokionez, zehazki etorkizuneko arautik eratorritako onura edo emaitzetan, nabarmendu behar da sektore publikoko langileei buruzko datuak eta herritarrei buruzko datuak jasotzen direla. Herritarrei buruzko datuak soilik aipatuko dira jarraian, txosten honen xedea den Legeak esparru hori arautzen baitu. Beraz, EAEko bizilagunei buruzko datuak aurkezten eta aztertzen dira, sexuaren arabera bereizita, eta informazioaren gizartean emakume eta gizonen artean dauden desberdintasunak aipatzen dira, arrakala digitalaren arazoa azpimarratuz. Ildo horretatik, interesgarria zatekeen aztertzea zer-nolako parte-hartzea izan duten emakumeek eta gizonak administrazioan, orain arte egin diren parte-hartze prozesuetan.

Orientabide moduan, besteak beste honako datu hauek bil zatezkeen:

- Parte-hartze prozesuetan esku hartu duten emakumeak eta gizonak, esku-hartze tipologiaren eta esparruen arabera.
- Parte-hartze prozesuetan esku hartu duten elkarteak edo erakundeak, esku-hartze esparruen arabera.
- Interes desberdinak ordezkatzeko dituzten taldeen tipologia eta osaera, sexuaren arabera bereizita.
- Emakumeek eta/edo gizonak gehien erabilitako parte-hartze tresnak.
- Diseinuan genero-ikuspegia txertatu duten esku-hartze prozesuak.

Alde horretatik, Euskal Herriko Unibertsitateko Parte Hartuz ikerketa-taldeak¹, 2002 eta 2008 artean, herritarrek Euskadiko udalerrietan izandako partaidetza-esperientzien mapa egin zuen, eta aztertutako prozesu edo mekanismoetan emakumeek izandako parte-hartzeari dagokionez, esan zuen ez dagoela daturik jasotako esperientzien erdietan, eta, datuak daudenean, haiek berresten dutela emakumeen presentzia % 50etik beherakoa dela parte hartzeko lau mekanismo eta esperientzietatik hirutan. Kontuan hartzen bada, gainera, emakumeen presentzia % 75etik gorakoa zen kasu

¹ Herritarren partaidetza-mekanismoen eta -esperientzien mapa Euskadin. Ajangiz, Rafael eta Blas, Asier (2008).

guztiak berdintasun-kontseilu edo -batzordeei zegozkiela, berdintasunari lotutakoak ez diren esparru eta gaitetan, emakumeek presentzia handiagoa zuten kasuak % 18 baino ez ziren. Bestalde, egiaztatu da herritarren parte-hartze prozesu edo esperientzietan genero-ikuspegia ez dela txertatu demokrazia parte-hartzailearen praktikan (eta ezta teoriarik ere, ez behintzat era esanguratsuan). Edonola ere, adierazi beharra dago parte-hartzearen fenomenoak, generoaren ikuspegitik, bi alderdi horiek dituela: alde batetik, emakumeen parte-hartzearena bera parte-hartze prozesu edo esperientzia horietan, eta bestetik, genero-ikuspegia txertatzearena. Izan ere, emakumeen parte-hartze soilak ez du berez bermatzen desberdintasun-egoerak eraldatu edo desagertuko direnik, ez badira zalantzan jartzen emakumeen eta gizonen arteko harremanak, eta batzuek zein besteek gizartean dituzten lekuak.

- * Bestalde, [baliabideen erabileran desberdintasunak ezabatu edo txikitzeari](#) dagokionez, oso positiboa irizten zaio genero-arrakala handien inguruko datu orokorrak biltzeari (lanaren banaketa sexuaren arabera, ugaltze lana, baliabide ekonomikoak, denbora, ikasketak eta prestakuntza eta teknologia berriak erabili edo eskura izateko aukera). Txosten honek aztergai duen erregulazioari dagokionez, emandako datu guztien artean kontuan hartzekoa da teknologia berriak erabiltzeko aukerari buruzkoa, IKTen ingurua dagoen genero-arrakala agerian jartzen duena. Izan ere, alderdi hori funtsezkoa da erregulazio-esparruari begira, batez ere gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari, publizitate aktiboari eta, azken buruan, herritarren parte-hartzeari dagokienez. Analisi honen osagarri, jarraibideen arabera arauak ondorioak izango dituen arloan egin beharreko egoeraren analisisan sakondu daiteke, dagokion esparruaren sektoreko material espezifikoren ² laguntzaz. Sektore hori [Informazioaren Gizartea](#) deitutakoa da, eta aipatutako analisia honako agiri honen

² Material horiek testuinguruan kokatzen dute sektore-eremu jakin bateko emakumeen eta gizonen egoera ezberdinen azterketa, orientazio modura; horri esker, honakoa egin daiteke:

- Sektore horretako desberdintasun garrantzitsuenak identifikatu, emakumeen eta gizonen presentziari, baliabideetarako sarbideari, parte-hartzeari, eta arau sozialei eta balioei dagokienez.

- Sektore horretako emakumeen eta gizonen berdintasunerako agindu zehatzak ezagutu.

osagarri izango litzateke: [Generoaren araberako eraginari buruzko txostenak lantzeko gida](#).

- * [Erabakiak hartzeari](#) dagokionez, positiboa irizten zaio arauaren lanketan parte hartu duten pertsonen buruzko datuak sexuaren arabera bereizita ematea, eta baita bestelako datu orokorrago batzuk ere; zehazki, EAEko sektore publikoan erabakiak hartzeko aukerari buruzkoak (Administrazio Publikoko goi-karguak), emakumeek IKTetan duten presentziari buruzkoak, jada aipatuak, baina kasu honetan arreta Sektore Publikoan jarritz, eta, azkenik, herritarrek erabakiak hartzeko aukerari buruzkoak (parte-hartze soziopolitikoak...). Kasu guztietan, emakumeen presentzia gizonena baino murriztagoa da. Edonola ere, txosten honek EAEko Administrazio Publikoaren Legearen aurreko aurreproiektura jotzen duenez, gogoratu behar da datu horiek eguneratu edo egiaztatu behar direla, beharrezkoa balitz.

- * Bestalde, emakumeei edo gizonen atxiki ohi zaizkien [arau sozialei eta balioei](#) dagokienez, ostera positiboki baloratzen da sexu-genero sisteman oinarritutako balioei, emakumeek eta gizonen dituzten iritzi desberdinei eta Informazioaren Gizarteari buruzko analisi orokorra, jarduera-esparrua oso zabala baita. Aurrez adierazi denez, eta parte-hartze prozesuek erregulazioan duten garrantzia aintzat hartuta, komeni da analisi bat egitea parte hartzeko kultura inklusibo baten gabezia nabarmenduko duena, kultura politiko tradizionaletik oinordetzan hartutako parametro andropozentrikoak gaindituko dituen (zalantzan jartzea erreferente unibertsal maskulinoa normala denaren neurri gisa hartzearen baliozkotasuna edo legitimitatea), emakumeen parte-hartzea bultzatuko duena (are gehiago, espazio publikoan sartzeko dituen zailtasunak aintzat hartuta). Horregatik, gomendatzen da, gainera, parte-hartze prozesu horietan gero-ikuspegia txerta dadin bultzatzea. Alde horretatik, Emakumeei buruzko IV. Mundu Konferentzian, Pekingo Deklarazioan, honako hau adierazi zen: *“Emakumeen ahalduntzea eta gizartearen arlo guztietan berdintasunez parte hartzea, baita erabakiak hartzeko prozesuetan eta botere-postuetan ere, ezinbestekoak dira berdintasuna, garapena eta bakea lortzeko”*.

Bestalde, [bazterkeria saihestera eta berdintasuna sustatzera bideratutako arauak betetzeari](#) dagokionez, eraginari buruzko txostenak berak, jarraibideen I. Eranskinen 5.

galderan jada aipatutakoaren harira, honako hau dio: *“Berdintasunaren arloan botere publiko guztientzat komunak diren mandatuei dagokienez, hala nola Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzko 4/2005 Legearen 3., 16., 18.4, 18.-22., eta 23.-24. artikuluetan ezarritako mandatuak, horiek beteko direla bermatuko da, honako kasu hauetan: Printzipio orokorretako 3. artikuluari dagokionez, berdintasun-printzipioa txertatu da funtzionamenduari eta herritarrekiko interakzioari buruzko 61.g artikuluan (orain 4.j artikulua) eta lege-proiektuen, plan estrategikoen eta jarduera esanguratsuen genero-eraginaren aurretiazko ebaluazio-prozedura arautzen duen 65.2 artikuluan (orain 7.2 artikulua). IV. Tituluan, 88.3 artikuluan (orain 23.3 artikulua), gardentasunari buruzkoan, genero-ikuspegia publizitate aktiboaren esparruan sartu behar delako printzipioa jaso da”.*

Edonola ere, txostenak berak nabarmentzen duenez, 4/2005 Legearen beste printzipio orokor batzuk ez dira sartzen, zehazki, *“antolaketa- eta funtzionamendu-printzipioak, eskubideak eta betebeharrak eta abar arautzen dituztenak, hala nola 7., 40., 58., 62., 111., 112. eta 113. artikulua”.* Ez da jaso 4/2005 Legearen 16. artikuluan ezarritakoa, estatistika genero-ikuspegitik egokitzeari dagokionez, ondoren erregistro bat sortzeko eta hura araudiaren arabera erregulatzeko (77. artikulua). Era berean, txostenean honako hau adierazten da: *“Parte-hartze soziopolitikoan ordezkariak orekatua sustatzeari dagokionez, 4/2005 Legearen 23. eta 24. artikuluek arautzen dituzten esparruetan, arau honek ez du aurreikusten ordezkariak orekatuaren printzipioa betetzea bermatzeko klausularik sartzea”.*

Gainera, txostenean adierazten denez, *“arauaren testuak bete egiten ditu 4/2005 Legean, 18.4 artikuluan, hizkera ez-sexista erabiltzeari dagokionez jasotako aginduak”.* Horri dagokionez, gomendatzen da *“hizkera ez-sexista erabiltzea”* esan ordez **“hizkera sexismorik gabe erabiltzea”** esatea, 4/2005 Legean erabiltzen den terminologiari hobeto egokitzen zaiolako, baina baita ere, hizkera berez ez delako diskriminatzailea, hizkera taxutzeko erabiltzen dugun era baizik.

Azkenik, teknologia berriei eta Informazioaren Gizarteari dagokionez, genero-eraginari buruzko txostenean adierazten da 4/2005 Legearen 26.3 artikulua betetzen dela, eta zehazki arauaren 115. artikulua (orain 59. artikulua), parte-hartzea sustatzeko neurriei buruzkoa. Horri dagokionez, adierazi nahi dugu otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 26. artikulua gizarte-

hedabideak eta publizitatea arautzen dituela, eta horrek ez daukala zerikusirik arau-proposamen honen 59. artikuluan parte-hartzea sustatzeko jasotako neurriekin.

Bestalde, aurreko guztia kontuan hartuta, **arauaren edukiari** dagokionez, hobekuntza hauek proposatzen dira:

- * Lehenik eta behin, gomendatzen da **azalpenezko zatian adieraztea** administrazio publikoak otsailaren 18ko 4/2005 Legeak ezarritakoa beteko duela, eta aukera-berdintasuna eta genero-ikuspegia txertatzea sustatuko dituela, haren jarduera administratiboaren gardentasun eta publizitateari eta euskal sektore publikoaren gobernu onari dagokien orotan.
- * Artikuluei dagokienez, oro har adierazi nahi genuke, emakume eta gizonen arteko berdintasuna berriaz jaso dituzten artikulua aipatu badira ere, interesgarria zatekeela adieraztea **zer-nola sartuko den genero-ikuspegia**³ aipatutako esparru bakoitzean, eta berriaz aipatzea helburu orokorra: desberdintasunak ezabatzea eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzea.
- * Zehazkiago, **xedapen orokorrei buruzko I. Tituluari** dagokionez, hobekuntza hau proposatzen da:
 - Proposatzen da **4.j artikuluan** “genero-berdintasunaren ikuspegia sartzea” esan ordez “**genero-ikuspegia**” esatea, otsailaren 18ko 4/2005 Legean erabiltzen den terminologiari hobeto egokitzen zaiolako.
- * **Politika publikoen plangintza eta ebaluazioari buruzko II. Tituluari** dagokionez, hobekuntza hauek proposatzen dira:

³ 4/2005 Legearen arabera, genero-ikuspegia txertatzeko, “euskal herri-aginteez genero-ikuspegia txertatu behar dute beren politika eta ekintza guztietan, halako moduz non horietan guztietan ezberdintasunak ezabatzeko eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko helburu orokorra ezarriko duten. Lege honen ondoretarako, honako hau da genero-ikuspegia txertatzea: emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, jomuga eta beharizan ezberdinak modu sistematikoan kontuan hartzea, eta, horretarako, ezberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko helburu eta jarduketak zehatzak txertatzea politika eta ekintza guztietan, maila guztietan eta horien plangintza-, egikaritze eta ebaluazio-fase guztietan”.

- Gogoratu behar da EAEko sektoreetako politika, plan eta programa guztiek genero-ikuspegia izateko beharra zehaztuta dagoela Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako 4/2005 Legearen 3.4 eta 18.1 artikuluetan, eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Planean jasotako Gobernantzarako neurrietako bat dela. Alde horretatik, iradokitzen dugu berriaz adierazi dadila planetan genero-ikuspegia sartuko dela haien diseinu-, ebaluazio- eta kudeaketa-prozesuan (horretarako, saileko berdintasun-unitatearen aholkularitza espezializatura jo ahal izango dute). Era berean, emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko informazioa, sentsibilizazioa eta prestakuntza helaraziko zaie sailaren zerbitzuko langileei, planifikatutako jarduerak gauza ditzaten, eta, jardutean, genero-ikuspegia bere egin dezaten. Izan ere, garrantzitsua da genero-ikuspegia jasotzea lege-aurreproiektu honen babesean egiten diren plangintza, ebaluazio eta jarraipenetan; are [5. artikuluan](#) araututako Gobernu Planaren babesean egindakoetan ere.

- Gomendatzen da [7.2 artikuluan](#), aurrez adierazi den moduan, EAEko Administrazio Publikoaren Legearen aurreproiektuaren aurreko testua berreskuratzea, aurretiazko ebaluazioekin lotutako esku-hartze prozesu orotan **genero-ikuspegia** txertatzearen garrantzia nabarmentzeko. Hala ere, ez da aipatzen ez aztertzen nola eragin diezaiokeen ebaluazio horrek otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 19. artikulutik 22. artikulura bitartean aurreikusita dagoen generoaren araberako eragina ebaluatzeko prozedurari, zeina, laburtuta, hau baita:
 - Arau-proiektu bat sustatzen duen edozein administrazio-organok generoaren araberako eragina ebaluatu behar du alde aurretik (19.1 artikulua).
 - Eraginaz egindako ebaluazioaren arabera, araua sustatzen duen organoak neurri zuzentzaileak gehitu behar ditu, desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko (20.1 artikulua).
 - Gero, eragin-ebaluazioa ondo egin dela eta neurri zuzentzaileak ondo jaso direla egiaztatuko da, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak egingo duen txosten baten bidez (21. artikulua).

- Azkenik, arauak legezkoak diren ala ez esan behar duten organoek zainduko dute Legean xedatutakoa betetzen dela.

Alde horretatik, esan nahiko genuke erakunde honen ustez generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazioa legezko betebeharra dela, baina horretaz gain, oso tresna baliagarria gobernantza hobetzeko eta emakumeen eta gizonen artean berdintasuna lortzen aurrera egiteko.

- Gomendatzen da 13. artikuluan, ezagutza zientifiko eta espezializatua politika publikoen ebaluazioan sartzeari buruzkoan, berariaz adieraztea konpromiso hau: erabaki politikoak hartzeko prozesuetan egiten diren **datuen analisietan** genero-ikuspegia uneoro aintzat hartzea; hala, ustiatu beharko dira, otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 16. artikulua betez, esku-hartze esparruetan emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, jomuga eta beharretan dauden aldeak ezagutzeko datuak. Era berean, gomendatzen da sektore publikoak, askotariko gaitasun tekniko eta zientifikoak baliatzean, bai erakundearen barruan bai –eta bereziki– erakunde akademikoetan edo ikerketa-erakundeetan, jakintza horretan guztian jaso daitezela hala genero-ikuspegia nola emakumeek ezagutzari egindako ekarpena, otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 33.2 artikuluan⁴ ezarritakoaren arabera. Orobat garrantzitsua da ikuspegi hori jaso dadila kontratazio publikoko prozesu baten bidez kanpo-aholkularitza –beharrezkoa balitz– jasotzeko irizpideen artean, otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 20.2 artikuluan⁵ ezarritakoaren arabera.

* Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko III. Tituluari dagokionez, hobekuntza hauek proposatzen dira:

- Gomendatzen da 15. artikuluan, gardentasunari eta informazio publikoaren kalitateari buruzkoan, berariaz konpromiso hau jasotzea: herritarren esku jartzen den informazio publikoan hizkera ez-sexista erabiliko dela, otsailaren

⁴ Horretarako, unibertsiteateko irakaskuntzako zainduko du "jakintza-arlo guztietako irakas-lanean eta ikerketa-lanetan genero-ikuspegia txerta dadin, hizkera ez-sexista erabil dadin, eta emakumeen jakintza eta emakumeek gizadiaren garapenari egindako garapen sozial eta historikoa jaso dadin bermatuko da".

⁵ Horretarako, esleipen-irizpideen artean irizpide jakin bat aplikatu beharko dute, aurkeztutako eskaintzan, eta baita gaitasun teknikoaren balorazioan ere, genero-ikuspegia txertatzea aintzat hartuko duena, eta, finean, kontratua gauzatzeko orduan gizon eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzeko neurriak bultzatuko dituzte.

18ko 4/2005 Legearen 18.4 artikuluan ezarritakoa betetze aldera; horren arabera, “euskal herri-aginteez ez dute hizkera sexista erabiliko, ez zuzenean, ez beste pertsona edo erakunde batzuen bitartez sortzen dituzten dokumentuetan eta euskarrietan”.

- Gogoratu behar da, herritarren informazioa eskuratzeko eskubideari eta beharrei buruzko **20. artikuluari** dagokionez, sailak, gardentasunari buruzko urteko txostena egiteko orduan, informazioa eskuratzeko eskatzaileen sexuaren aldagaiaren datua jasotzeaz gain –otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 16.e artikulua betez–, esku-hartze esparruetan emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, jomuga eta beharretan dauden aldeak ezagutzeko datuak ustiatu behar dituela.
- Gomendatzen da **22. artikuluan** aurreikusitako publizitate aktiboaren printzipio gidarien artean berariaz adieraztea, beste behin, ulergarritasun eta irisgarritasun unibertsaleko printzipioa betetzeko hizkeraren erabilera ez-sexista egingo dela.
- Gogoratu behar da, juridikoki garrantzizkoa den informazioa buruzko **26.d artikuluari** dagokionez, eraginari buruzko ebaluazioen nahitaezko txostenak argitaratzeko orduan arauaren espedientean –aukeran memoria orokorretan– jaso behar dela zein izapide egin diren 4/2005 Legearen 19. eta 20. artikulua betetzeko. Hori guztia, generoaren arabera eraginari buruzko aurretiazko ebaluazioa egiteko ildoak onartzen dituzten Akordioaren Hirugarren Ildoan ezarritakoa aplikatuz.
- Gomendatzen da, eragin ekonomikoa duen jarduera administratiboaren informazioari buruzko **27. artikuluari** eta kontratuen inguruko informazioari buruzko **28. artikuluari** dagokienez, diru-laguntza, laguntza publiko, kontratu eta hitzarmenen onuradunei buruzko informazioa sexuaren arabera bereizita argitaratzea. Alde horretatik, argitaratzen den estatistika-informazio orok bete behar du, aurrez gogorazi denez, otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 16. artikulua. Komenigarria litzateke argitaratu beharreko informazioan sartzea berdintasun-irizpideak kontuan hartu dituzten diru-laguntza, laguntza publiko, kontratu eta hitzarmenen zerrenda bat, 4/2005 Legearen 20.2 artikulua

betez⁶. Gogoratu behar da, gainera, 4/2005 Legearen 2.3 artikuluan adierazitakoaren arabera, haren 3., 16., 18.4 eta 23. artikulua⁷ aplikagarriak zaizkiela botere publiko guztiei eta baita erakunde pribatuei ere, baldin eta Erkidegoko botere publikoetako batekin kontratuak edo lankidetzahitzarmenak sinatzen badituzte, edo botere publiko horiek emandako laguntzen edo diru-laguntzen onuradunak badira. Horretarako, betebeharroriek guztiak sartu behar dira lege-aurreproiektu honen babesean arautzen diren hitzarmen/kontratueterako diru-laguntzen klausuletan edo irizpideetan.

- Bestalde, **30. artikuluan** gomendatzen da, egokia denean, argitaratzen den informazio ekonomiko eta aurrekontuari zein ondareari buruzko informazio orotan datuak sexuaren arabera bereizita jasotzea, ostera otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 16. artikulua betez, eta aurrekontu-sailen deskribapen laburretan nabarmentzea, egokia balitz, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko premia, otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 14. artikulua⁸ betez.

* **Herritarren parte-hartzeari eta parte-hartze prozesuei buruzko IV. Tituluari**

dagokionez, hobekuntza hauek proposatzen dira:

- Generoaren araberako eraginari buruzko txostenak jasotzen ez badu ere, aurreproiektu honetan, interesa duten pertsonen eta parte-hartze prozesuei buruzko **57.1 artikuluan** honako hau aurreikusten da: *“Parte-hartzeari dagokionez lege honetan jasotzen diren eskubideak baliatzeko orduan, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoak irisgarritasun-printzipioa beteko dela bermatu beharko du, eta ziurtatu beharko du, halaber, herritarren gizarte-inklusio osoa, **herritarren tratu-berdintasuna sustatuz**, eta baita interesa agertzen duten kolektibo eta talde sozialena ere, horiek iraunkorrak izan zein*

⁶ Informazio gehiago dago, horri buruzko berariazko atal honetan: Berdintasunaren aldeko klausulak. Kontratu, diru-laguntza eta enpresetan berdintasunaren aldeko klausulak sartzea. <http://www.emakunde.euskadi.eus/politicas-publicas/-informacion/clausulas-igualdad/#sthash.LBcZCuQV.dpuf>

⁷ Horietan ezarritakoa betez, sexuaren arabera bereizitako datuak izan behar dituzte, hizkera ez-sexista erabili, beren zuzendaritza-organoetan emakumeen eta gizonen presentzia orekatua sustatu eta 4/2005 Legearen 3. artikulua emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari dagokionez ezarritako printzipio orokorrak errespetatu.

⁸ Artikulu horren arabera, administrazio autonomiko, foral eta lokalek, urtero, lege honetan jasotzen diren eginkizunak betetzeko eta neurriak egikaritzeko behar dituzten baliabide ekonomikoak izendatuko eta zehaztuko dituzte bakoitzaren aurrekontuetan.

ez”. Alde horretatik, emakume eta gizonen irisgarritasunari buruzko testuaren idazketa hobetzea proposatzen da; horretarako, tratu-berdintasunaz⁹ gain, ***aukera-berdintasuna***¹⁰ ere jasoko da.

- Gogoratu nahi da, askotariko interes-talde adierazgarrii (erakunde kolektiboak, presio- edo interes-taldeak eta hausnarketa-taldeak) buruzko **58. artikuluari** dagokionez, estrategikoa dela emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioa bermatzea, eta, horren harira, herritargoa osatzen duten emakumeen eta gizonen beharrian eta espektatiba desberdinak eskuarki identifikatzea, otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 3.4 eta 18. artikulua betetze aldera; eta estrategikoa da, halaber, emakumeen ekarpena, eta emakumeen interes eta beharrian espezifikoa defendatzen dituzten taldeena, bermatzea, eta arlo akademikoan haien ekarpena eta jakintza bermatzea, genero-ikuspegitik eta/edo emakumeen berezko jakintzatik, otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 33.2 artikulua betez.
- Gomendatzen da parte-hartze prozedurei eta tresnei buruzko **61. artikuluan** berriaz adierazi dadila, erabiltzen den tresna edozein delarik ere, beti sustatuko dela parte-hartze prozesu horietan genero-ikuspegia txertatzea.
- Gomendatzen da, parte-hartze txostenari buruzko **61. artikuluari** dagokionez, berriaz adierazi dadila genero-azterketa sartuko dela herritarren parte-hartze maila ebaluatzeko orduan, parte-hartzeari buruz sexuaren arabera bereizitako datuak eta egindako proposamenen tipologia jasoz.
- Azkenik, gogoratu behar da, herritarren jardueretan sektore publikoaren laguntza eskatzeko eskubideari buruzko **66. artikuluari** dagokionez, 4/2005 Legearen 2.3 artikuluan adierazitakoaren arabera, lege horren 3., 16., 18.4 eta 23. artikulua aplikagarriak zaizkiela botere publiko guztiei eta baita erakunde pribatuei ere, baldin eta Erkidegoko botere publikoetako batekin kontratuak edo

⁹ 4/2005 Legearen arabera, tratu-berdintasunak berekin dakar pertsonen sexuan oinarritutako bazterkeria oro ezabatzea, bai zuzeneko bai zeharkakoa, horretarako erabilitako modua edozein izanik ere.

¹⁰ 4/2005 Legearen arabera, tratu-berdintasunak honakoa dakar: “Euskal herri-agintek neurri egokiak hartu behar dituzte emakumeek eta gizonen eskubide politikoak, zibilak, ekonomikoak, sozialak eta kulturalak, eta arauetan aitortu lekizkiekeen gainerako oinarriko eskubideak, aukera berdinekin baliatzen dituztela bermatzeko, boterea eta baliabide eta etekin ekonomikoak eta sozialak eskuratu eta kontrolatzea barne”. Lege horren ondorioetarako, aukera-berdintasunaz ari garela, zera esan nahi da: agintea eta baliabide eta onura sozial eta ekonomikoak eskuratzeko abiagune edo hasierako baldintzak ez ezik, horiek guztiak gauzatzeko eta behar den moduan kontrolatzeko baldintzez ere ari garela. Era berean, botere publikoek bermatuko dute lege honetan araututako eskubideen erabilera eraginkorra eta baliabideak eskuratzeko aukera ez dutela tratatu edo eragotziko abenduaren 4ko 20/1997 Legeak, Irisgarritasuna sustatzekoak, ezabatzea aurreikusitako ezein oztopok.

lankidetzeta-hitzarmenak sinatzen badituzte, edo botere publiko horiek emandako laguntzen edo diru-laguntzen onuradunak badira. Horretarako, betebeharrak horiek guztiak sartu behar dira lege-aurreproiektu honen babesean arautzen diren hitzarmen/kontratueterako diru-laguntzen klausuletan edo irizpideetan. Bestalde, gogorarazi behar da Lege honek berak elkarte eta erakundeei buruzko 24. artikuluan aurreikusten duena.¹¹

* [Gardentasunerako eta gobernu onerako erakunde eta instituzioei buruzko V. Tituluari](#) dagokionez, hobekuntza hauek proposatzen dira:

- Gogora ekarri behar da, [Gardentasunaren Euskal Kontseiluari buruzko 67.-76. artikuluei](#) dagokienez (Gardena-Gardentasunaren Euskal Agentziako presidentetzaren aholkularia), 4/2005 Legearen 23. artikuluan ezarritakoaren arabera trebakuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia duten emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatua sustatu beharko dela, gardentasunerako eta gobernu onerako erakunde eta instituzioen osakerari begira.
- [77.-80. artikuluetan](#) aurreikusitako herritarren eta askotariko interes-talde adierazgarrien parte-hartze eta laguntzarako erregistroari dagokionez, zenbait proposamen egin litezke, otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 16. artikulua ildotik:
 - Iradokitzen da herritarren nahiz askotariko interes-talde adierazgarrien sustatzaile eta ordezkarien datuak sexuaren arabera bereizita jasoko direla gehitzea. Orobat proposatzen da inskribatutako erakunde eta

11

- EAEko administrazio publikoek sustatu behar dute emakumeen eta gizonen presentzia orekatua izan dadila profesionalen, enpresaren, gizarte-ekonomiaren, sindikatuen, politikaren, kulturaren eta bestelako arloetako elkarte eta erakunde zuzendaritzako organoetan. Xede horretarako, beste jarduerak batzuen artean, ordezkari eskasak dituzten zuzendaritza-organoen emakumeen presentzia handitzea ahalbidetuko duten neurriak hartzearen arabera dagozkien diru-laguntzak egokitu ahal izango dituzte.
- EAEko administrazio publikoek ezin izango diete inolako laguntzarik eman kideak aukeratzeko prozesuan edo lan-jardunean sexuaren ziozko bereizkeria eragiten duten elkarte edo erakundeei.
- Lege honetan aipatzen diren helburuak lortzeko asmoz eraturiko elkarteak bultzatuko dituzte EAEko administrazio publikoek.
- Emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzea helburu duten zerbitzuak eskaintzen dituzten irabazi asmorik gabeko erakundeak onura publikokotzat deklaratu ahal izango dira, erakunde bakoitzaren forma juridikoari dagokion legedia bereizien ezarritakoari jarraiki.

taldeetan zenbat emakume eta gizon dauden jasotzea. Hori guztia, datuak sexuaren arabera estatistikoki ustiatu ahal izan daitezen, jakiteko zein neurritan esku hartzen dute emakumeek eta gizonen parte-hartze prozesuetan, eta zein esparrutan.

- Era berean, interesgarria litzateke jasotzea erregistratutako talde horien interesen artean dagoen emakumeen eta gizonen berdintasuna defendatu edo sustatzea.

Oro har, eta ahal den neurrian, gomendatzen da tankera honetako konpromisoak arauaren testuan idatzita egotea, neurri horiek finkatze aldera.

Azkenik, beharrezkoa da lege-proiektuaren gaztelaniazko testuan maskulinoan bakarrik idatzitako terminoak berrikustea eta egokitzea 4/2005 Legearen 18.4 artikuluan adierazten den **hizkuntzaren erabilera ez-sexistarekin bat**; izan ere, gaztelaniazko testuan termino hauek agertzen dira, besteak beste: *“los ciudadanos”*, *“para todos”* eta *“los solicitantes”*. Hizkera modu ez-sexistan erabiltzeko, lagungarriak izan litezke Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak argitaratu dituen gidak, haren webgunean eskuragarri daudenak: <http://www.emakunde.euskadi.eus/documentacion-publicaciones/-/informacion/guias/>.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko uztailaren 14a.